

Aita diplomatikoa-
ren magalean kul-
tura desberdinetat-
ik edanez igaro
zituen bizitzako
lehen urteak. Abe-
rri argirik gabe, Euskal Herrian
bota zuen aingura 1990. urtean,
denboraren poderioz erabat ber-
takotuz. “Egin” egunkariko zu-
zendariorde izan zen, eta proze-
satu eta espetxeratu egin zuten
19/98 makrosumarioaren bai-
tan. Orain urtebete berreskuratu
zuen askatasuna, eta, apenas
atsedenik hartu gabe, Konponbi-
dean lehenengo eta Saren ondo-
ren temati dabil dispertsioaren
aurka eta euskal presoen esku-
bideen alde. Gaurko manifes-
taldiaren prestaketa lanetan
diharduen bitartean hurbildu
gatzazkio, prentsaurrekoetako
fokuen aurrean eta pankartaren
atzean ezkutatzen zaigun Teresa
Toda gertutik ezagutzeko asmoz.

**Brasilgo Porto Alegre hirian
jaio zinen, 1950. urtean.**

Bai, Estatu espainoleko diplo-
matikoa nuen aita eta kontsul
moduan zegoen Brasilen ni jaio
nintzenean.

**Aita diplomatikoa izanik, he-
rrialde batetik bestera aritu zi-
nen haurtzaroan.**

Bai, pentsa, lau anaia-arreba ga-
ra eta bakoitza munduko puntu
batean jaioak gara kasik. Ni naiz
zaharrena, eta ni eta nire ondo-
rengoa ere Brasilen jaioetakoak
gara. Hurrengoa, aldiz, Txilen
jaio zen, eta, ahizpa txikiena,
Ameriketako Estatu Batuetan.

**Nola gogoratzen duzu zure
haurtzaroa?**

Porto Alegre ez dut apenas go-
goratzen, 3 urte nituela Txilera
joan ginen-eta. 12 urte nituela
berri iztuli ginen Brasilera, or-
duan Rio de Janeirora. Tarteka
Madrilera ere etortzen ginen,
nahiz eta aita jatorriz katalana
izan eta ama Valladolidekoa
Madrilen baikeuen familia
erreferentzia; amona bertan bi-
zi zen. Los Angelesen ere bizi
izan nintzen, baina 16 urte ni-
tuela Madrileren bidali ninduten
barnetegi batera. Eta han-
dik Ingalaterrara, han zeuden

eta orduan gurasoak. Oso gogo-
an ditut urte haiek: minigona-
ren hasiera, Rolling Stones tal-
dea... Sekulako mugimendu
hippya zegoen garai hartan! Ir-
landako gatazkaren ezta-
ndak ere bertan harrapatu ninduen,
bere puntu gorenera iritsi bai-
tzen auzia garai horretan.

**Aurrera eta atzera ibiltzea ego-
kitu zaizu, eta, horrek, noski,
kultura askotatik edateko au-
kera emango zizun.**

Aberasgarria da, baina badu be-
re alde iluna ere: zauden lekuan
zaudela ez zara inoiz erabat ber-
tako sentitzen. Umetan lagunak
egiten dituzu, zure giroa sortu,
eta, bat-batean, boom, berri ze-
rotik hastera. Nire bizitza osoan
zehir etengabe errepikatu da
egoera hori. Beti mugitzen, eta,
gainera, gehienetan ez nik hala
nahi nuelako, egoerak bultzatu-
ta baizik. Oso zaila da haurtzaro
eta gaztaroko lagunak era horre-
tan mantentzea.

**Alde batetik bestera ibili oste-
an, Iruñea hautatu zenuen az-
kenean kazetaritza ikasketak
egiteko. Nolatan?**

Bai, 1968an, Opus Deik Iruñean
duen Nafarroako Unibertsitate-
an sartu ninduten gurasoek ka-



«Dispertsioa harresien bi
aldeetatik ezagutu orduko
erabaki nuen haren kontra
arituko nintzela»

TERESA

TODA

MILITANTE NEKAEZINA

Langile borrokaren ala kazetari lumaren
eskutik bidegabekeriak seinalatuz eman
du bizitza osoa. Kartzelaldiak guda zelaia
aldatu eta dispertsioa jarri dio jomugan.

zetaritza ikasteko. Madrileko giroa baino lasaiagoa izango zelakoan hautatu zuten Iruñea, baina ez zuten asmatu. Urtebete ere ez nuen iraun unibertsitatean, bota egin ninduten-eta.

Zergatik bota zintuzten?

Oso urte mugitua izan zen. Pentsa, Meliton Manzanask hil eta hiru egunera iritsi nintzen ni Euskal Herrira. Gauzak oso nahasita zeuden. Nire kasuan, bizilagunek unibertsitateari eskatutako lursail batzuen harira bota ninduten. Gure unibertsitate oso elitista zen, ez zegoen bizilagunen eskura, eta, azkenerako, dena nahastu zen, antifrankismoa, bizilagunen aldarrikapenak... Kontuak kontu, itxialdi bat egin genuen ikasleok eta atxilotu egin gintuzten; unibertsitateak kanporatu egin gintuen horregatik.

Hala ezagutu zenuen, beraz, Euskal Herria.

Beti berdina diot: ni ez nintzateke gaur egun hemen egongo ikastera Iruñera etorri ez banintz. Izan ere, bertan Euskal Herriaren egoera ezagutu nuen, euskarazko lehen hitzak ere bertan entzun nituen...

Gurasoek nola hartu zuten zure kanporatzea?

Gaizki [barreak]. Gurasoak Ingalaterran zeuden eta unibertsitatetik bota nindutenean ezinbestean haiengana itzuli nintzen. Haiek segituan Madrilerara bidali nahi izan ninduten ikasketak bukatzera; matrikula ordainduko zidatela esan zidaten, baina politikan sartuko ez nintzen baldintzapean. Nik ezin nuen hitz hori bete, eta, ondorioz, nire bizitzarekin jarraitzea erabaki nuen. Pare bat urtez Ingalaterran gelditu nintzen, lanean. Bertako abokatuen eskolako aldizkari batean hasi nintzen, hasieran idazkari moduan eta ondoren kazetari lanetan. Ondoren, telebistako berri agentzia batean ere aritu nintzen. Noski, orduan ez zegoen ez Internetik, ez WhatsAppik ez deusik ere, eta bideo bat bidali ahal izateko hegazkinez bidali behar genuen. Estatu espainolean korrespontsal bat bage-nuen, baina, zentsura zegoenez, aireportuetan bidaiari jatorrak

aurkitu eta hari ematen genizkion pelikulak. Burgosko epaiketaren garaiak eta ziren.

Ikasketak, baina, bukatu zenituen, ezta?

Bai, bi urteren ostean, Madrilerara joan nintzen, Escuela Oficial de Periodismora, eta bertan bukatu nituen ikasketak. Frankismo garaian unibertsitaterik ez zegoen

«1968an ezagutunuen Euskal Herria, Iruñera ikastera etorri nintzenean.

Urtebete ere ez nuen unibertsitatean iraun, bota egin ninduten-eta»

oraindik, eta bertako azken pro-moziokoa naiz ni.

Praktikak, aldiz, «ABC» egunkarian egin zenituen.

1972. urtea zen, frankismoa puripurian zegoen, eta garai hartan ez zegoen bestelako kazetaritzarik. Bidetik ateratzen zen bakararra “Información” zen, baina bertan behera utzi zuten. Beste guztiak, ña-

bardurak ñabardura, oso antzekoak ziren. Pentsa, ni nintzen “ABC” egunkariko erredakzioan emakume bakarra. Ni orrialde grafikoe-tan nengoen, eta lankide batzuekin oso esperientzia politak bizi izan nituen, Luis Maria Ansonekin, berriz, ez hainbeste.

Orduan ere ez ziren joan-etorriak amaitu.

«Guk egiten ez duguna ez dute besteek egingo, horregatik da garrantzitsua gaur Bilbora joatea»

Espetxetik atera eta apenas atsedetik hartu gabe, Konponbidean lehenengo eta Saren ondoren euskal preso- eskubideen alde aritu zara. Zergatik?

Espetxean erabaki nuen dis-pertsioaren aurka eta preso- en eskubideen alde arituko nintzela kalean. Nire ekarpena non egin nezakeen pentsatzen eman nituen nire espetxealdiko azken hilabeteak. Dagoeneko ez naiz kazetaria, etapa hori bukatu nuen, nahiz eta maila batean kazetariak apaizak modukoak garen... [barreak]. Baina nire adinarekin ez nuen nire burua lan horretan ikusten. Nire ahaleginak preso- en eskubideen alde bideratzea erabaki nuen dis-pertsioa barrutik zer zen ezagutu ondoren, are gehiago beste biolentziak eta beste egoera bortitzak eten direla ikusita. Gainera, preso- en egoera kaskarra ez da soilik mantendu, sakondu ere egin dute gober-nuek.

Sarek euskal preso- en eskubideen aldeko sarea izan nahi du. Zergatik indartu behar da une politiko honetan?

Egoera benetan larria da, 25 urte baino gehiago bete ditu dis-pertsioak eta euskal jendarte- an preso- en afera behin betiko konpontzeko gogo- a, nahia, nagusi da. Herriz herri ekitalditxoak daude, manifestazio erraldoiak... Saretik horri guztiari bide bat eman nahi diogu, hori guztia saretzen, hain zuzen ere.

Zergatik da Sare herritarren arteko sarea?

Guk beti diogu behetik gora egingo dugula bidea. Herriz herri eta auzoz auzo Sare osatzen den heinean, tokian toki gauza oso desberdinak egiten direla konturatzen gara eta hori oso positiboa da. Jendea irudimena lantzen ari da, asmakizunetan dabil, gai zaharrari buelta berri bat emateko. Desberdinen arteko lanean sakontzeko.

Euskal Herrian ere kontzientziazio lana behar da, gure bizilagunek ere ez dakite dis-pertsioak zer-nolako eragina duen edo zein garrantzia duen dis-pertsioarekin bukatzeak prozesuari bultzada bat emateko, bizikidetzarako... Herritar guzti- guzti-ekin hitz egin behar dugu. Zaila izango da une batzuetan, urteen poderioz zauriak eta hesiak eraiki ditugulako, baina horiek gainditu beharra dugu; etiketak kendu behar ditugu, gureak eta beste- enak, eta eskubideez ari garela ikusarazi behar dugu, hau ez dela gai politikoa.

Zein egoera bizi dute euskal presoek egun?

Larria eta urgentea. Oso egoera gogor- rak bizi dituzte euskal presoek. Adibide bat ipintze- arren, orain dela gutxi jakin dut 6 urteko seme bat duen eta Kordobako espetxean zegoen bikote bat banatu egin dutela. Haur- raren aita Sevillan dago orain, eta, ama, berriz, Kordoban. Ume honek zer egin behar du? Hilean bitan Andaluziaraino joan? Haurrek zergatik pairatu behar dituzte halako egoerak?

Honek argi adierazten du zer-nolako maltzurkeria dagoen dis-pertsioaren atzean. Hori pentsatu eta erabaki duenak, badaki zer-nolako mina egiten duen eta zertara behartzen duen umea. Dis-pertsioan ez dago kasualitaterik, dena guztiz diseinatuta dago.

Sareren asmoa, beraz, munduari eta Euskal Herriari dis-pertsioa zer den azaltzea da. Euskal Herriaren kontzientzia astindu behar da, eta astindu horretatik aktibazioa pasa, ez bakarrik urtarri- leko manifestaldira begira; egunero- egunero egin behar da euskal preso- en eskubideen alde lan.

Gaur Bilbon ipini du hitzordua Sarek. Zergatik da zita garrantzitsua?

Gaia geldirik edo itxita ez dagoela erakutsi behar dugu, eta, gober- nuei, espainolari eta frantsesari, bertako instituzioei eta alderdi politikoei euskal jendarte- an presoak hurbiltzeko indarra eta eskaera nagusi direla jakinarazi behar diegu.

«Now!» leloarekin nazioarte-ari ireki nahi al diozue leihoa?

Liburuarekin bezala, manifestazioarekin ere munduari erakutsi nahi diogu dis-pertsioa zer den; horregatik hautatu dugu mundu guztian ulertzeko moduko aldarria.

Nazioarte- an lan egiteko bokazio badu, beraz, Sarek.

Bai, liburuxka zabalduz eta nazioarte- ko eragileekin harremanetan jarritz, baita Unicef eta antzeko eragileekin ere, zer gertatzen ari den azaldu nahi dugu. Madrili eta Parisi presioa eragiteko moduko giroa sustatu nahi dugu. “Parot doktrinarekin” ikusi genuen bezala, Europaren jarrera hil ala bizikoa izan daiteke. Estatu espainol eta frantsesean giza eskubideen alde aritzen diren taldeekin ere egon nahiko genuke. Finean, kontzientzia lana egin nahi dugu, pixkanaka-pixkanaka alderdi eta instituzioengana heltzeko, bai hemengoak eta baita Madrilgo bertakoak ere. Argi dagoen kontu bakar- ra zain geratu ezin gaitezkeela da. Hazten den belarra izan behar dugu.

Garrantzi berezia ematen diozue nazioarte-ak eragin dezakeen presioari.

Bai, baina lanak hemen izan beharra du abiapuntua ezinbestean. Guk egiten ez duguna ez dute nazioarte- an egingo, hori argi dago. Guri laguntzeko hemen indar handia dagoela ikusi behar dute eta horregatik da garrantzitsua gaur Bilbora joatea.

Ez. Karrera amaituta ezkondu eta Kataluniara joan nintzen. Hiru urte eman nituen ezkondata, baina, banatu ostean ere, Bartzelonan segi nuen. Comisiones Obreras sindikatuan aritu nintzen lanean, prentsa bulegoan; oso urte bereziak izan ziren sindikalgingtzarako. Langile mugimenduak sekulako indarra zuen eta Comisiones Obreras Kataluniako sindikatu indartsuenetakoa zen. Mobilizazio erraldoiak egiten ziren.

1984an «Egin»-eko Madrileko korrespontsalia eskaini zizuten. Nolatan jo zuten zuregana eta zergatik onartu zenuen?

Garai hartan Movimiento Comunistako publikazio batean nenbilen eta harreman pertsonalak medio eskaini zidaten “Egin”-eko korrespontsalia. Oso gustura hartu nuen ardura, eta, 1987an, adibidez, erabat dedikatu nintzen egunkarira. Epaiketa mordoan zeuden Audientzia Nazionean orduan, pentsa, 700 epaiketen berri eman izan dut. Bertako kronika politiko eta soziala ere egiten hasi nintzen... Madrid contra la droga, Enrique de Castroren mugimendua, Vallecasedeko mugimendua...

1990. urtean, baina, Euskal Herrira etorri zinen. Zergatik?

Alcala hoteleko atentatua eta gero etorri nintzen. Ni bertan nengoen egun hartan. Madrileko korrespontsala nintzen eta Josu Muguruza bera zen nire erredaktore burua; harreman oso estua genuen. Josuren bizitzarekin bukatzeaz gain, bertan geunden beste guztion bizitza markatu zuten; aztarna utzi digu Estatu terrorismoaren krimen horrek. Beste guztiak Euskal Herrira itzuli ziren atentatuaren ostean, baina ni Madrilen bizi nintzen. Madrileko giroa, baina, bero-bero zegoen garai hartan eta Euskal Herrira etortzea proposatu zidaten, segurtasunagatik batik bat. Bilboko erredakziora joan nintzen hasieran, eta, ondoren, Gipuzkoara etorri nintzen, *giputxi* bihurtuz. Orain Urnietan bizi naiz.

Egokitu al zara Euskal Herrira?
Zorte handia izan dut Euskal Herrian, ia berrogei urterekin etorri bainintzen. Madrilen ber-



tan egindako lagunak nituen, abokatuak, presoen senideak... “Egin”-eko kazetariekin ere harremana banuen, Madriletik noizean behin etortzen bainin-

tzen haiekin egon eta parrandan aritzera [barreak]. Banuen oinarri bat, baina zortea izan dut, hemen harremanak gaztaroan sortzen baitira eta zirkulu

horietan sartzea ez baita beti xamurra. Nik, baina, lagun onak aurkitu ditut; mendi taldeetan ibiltzea ere atsegin dut, eta primeran egokitu naiz.

1968an entzun zenuen euskara lehen aldiz. Gaur egun primeran moldatzen zara. Nola eta zergatik ikasi duzu euskara?

Hemen bizi naizelako erabaki nuen ikastea. Nire bizitzan alde batetik bestera ibili eta nengoen tokira egokitu beharra izan dut, herri horietako hizkuntzak ikasiz, noski. Hori da normalena, izan ere, hizkuntzek erabiltzaileen izaera ere erakusten dute, pentsaera moldeak, tradizioak...

Madrilen eman nituen euskara ikasteko lehen pausuak, han hartu baintuen lagun batzuekin lehen klaseak. 1989an, oraindik Madrilen nengoela, barnetegi batean izan nintzen, baita ondoren 1991n ere; euskara ikasteaz gain, primeran pasa nuen bi aldietan. Ondoren ere jarraitu dut euskara ikasten. Bilbon lehenengo, eta, ondoren, Erreteriarra bizitzera joan nintzenean, Xabier Alegria euskaltegiko irakasle nuela. Oso irakasle ona gainera! Urnietara heltzean, berriz, harremanak euskaraz egingo nituela erabaki nuen, eta oso polita izan da; kuadrillan gazteleraz aritzeko ohitura genuen, baina pixkana-pixkana euskaraz egitea lortu dugu.

Espetxean ere egunero ordubetez nire kasa aritu naiz euskara ikasten, euskara fintzen. Egunero euskaraz irakurtzen nuen, dela liburua, dela egunkariak, dela GAUR8 bera; pentsa, asko lagundu dit astekari honek. Baldintzekin borrokatuz ere ariketa mordoan egin ditut, eta kideekin euskaraz aritzen nintzen beti.

«Egin» egunkariko zuzendariordea ere izan zinen.

1992an hartu nuen ardura hori. Oso lan polita egin genuen, egunkariari erabateko aldaketa emanez: *kabezera* bertatik hasi, kolorea sartu... Aldaketa prozesu luzea izan zen, jendeari entzuten, planifikazio berriak eginez... Berrikuntza prozesu oso handia jarri genuen martxan.

1998an, baina, eszedentzia hartu zenuen.

“Egin” itxi baina hilabete lehenago eskatu nuen eszedentzia. LAB sindikatura joan nintzen “Iraultzen” aldizkarian aritzeko, baina “Egin” bertako zereginetan ere ja-

rraitzen nuen lanean. “Iraul-tzen”-en jarraitu nuen atxilotu arte, nahiz eta Nazio Eztabaida Gunean lehenengo eta 18/98+ lantaldean ere aritu ondoren.

Urte berean itxi zuten «Egin» eta zu zeu prozesatu egin zintuzten.

“Egin”-en itxiera terriblea izan zen. “Egin”-ek eraso dezente jasan zituen bere ibilbidean: hasi publizitate instituzionalaren boikotarekin, fax mehatxuak, mehatxu pertsonalak... Ertzaintza eta Guardia Zibila ere sartu izan ziren erredakziora miaketak egitera. Denetarik sufritu genuen, baina, hala eta guztiz ere, gu beti aurrera. Eta itxieraren ondoren, berdin, “Euskadi Información” egunkariarekin lehenik eta ondoren GARArekin. Indarra eta beharra zegoela erakutsi zen horrela.

Nola gogoratzten duzu 18/98 makroepaiketa?

Prozesatu nindutenetik banekien kartzelara joango nintzela. Argi eta garbi nuen, nahiz eta jendea kontrakoa esaten tematu. Zoritarrez, nik nuen arrazoa. Estatu batek halako eraso bat egin, egunkari bat itxi eta inor ez kartzelatu? Espetxeratzeekin egingakoa nolabait justifikatu nahi zuten.

Elkartasun handia jaso zenu-ten inputatuko lagunek.

Bai, oso lan polita egin zen; astero biltzen ginen sumarioko pieza desberdinetako ordezkariak, eta, ondoren, pieza bakoitzeko kideak elkartu eta afaria egiten genuen. Bat Egin Eguna, CDak, kamisetak, Madrilera joateko furgonetak lotu, lo egiteko lekua aurkitu... Diru eta indar xahuketa handia izan zen epaiketa. 2005eko azaroan hasi eta 2007ko martxoan amaitu zen, pentsa! Gogorra izan zen, baina bertan sortutako harremanak ederrak izan dira, espetxean igarotako urteetan eta orain ere mantendu ditugunak. Kanpoan ere gure ingurukoek eta absolbitutakoek harreman polita egin dute. Giza ikuspegitik oso esperientzia polita izan da, oso jende desberdina baikin. Epaiketa bitartean, sudokuak egiten ikasi nuen, makina bat liburu irakurri...

Lortu duzu erabateko euskal herritar sentitzea?

Bai, ni urnietarra naiz [barreak]. Hala erantzuten dut galdetzen didaten bakoitzean. Hala sentitzen dut, gustura nago eta hau da nire aberria.

Sei urte eman dituzu preso. Nolako esperientzia izan da?

Beste preso askoren espetxeal-diekin alderatuta, nirea motza izan da. Esperientzia batzuk hor geldituko dira, betiko. Espetxean asko ikasten duzu, zure burua erabat ezagutzen duzu; harremanak, maitasuna... beste era batera bizi dituzu. Kanpotik beti ezagutu dut dispertsioa, nire lanbideagatik, senideen ahotik, lagunengandik... baina orain, harresien bi aldeak ezagututa, konturatzen zara behar-beharrezkoa dela dispertsioarekin bukatzea. Espetxeak pertsonak zapuzteko instituzioak dira, are gehiago euskal presoek kasuan. Sekulako indarra dago kolektiboan eta bakoitzaren konbikzio eta konpromisoak ezinbesteko-

IBILBIDEA 1950.

urtean jaio zen Brasilgo Porto Alegre hirian. Txile, Ameriketako Estatu Batuak eta Ingalaterran bizi ostean, 1968an Iruñera etorri zen Kazetaritza ikastera.

«Egin» egunkariko Madrilako korrespontsala izan zen, eta, 1990ean, Alcalá hoteleko atentatua eta gero, Euskal Herrira etorri zen bizitzera. «Egin» egunkariko **zuzendariordea** izateagatik auzipetu eta espetxeratu egin zuten **18/98 makrosumarioaren baitan**.

Lerro hauen azpian, Teresa Toda, 18/98+ makrosumarioa abiatu aurretik.
Juan Carlos RUIZ-Andoni
CANELLADA | ARGAZKI PRESS

ak dira aurrera egiteko, edozein modu bilatzen baitute zu izorratzeko, gauza txikia ala handia izan. Hori da espetxearen alde tragikoa. Hor barruan, baina, zure denboraren jabea zara. Hori da zure askatasun espazioa, eta kideekin konpartitzeko une ahaztezinak bizi dituzu. Bizi duzun gordintasunari aurre egiteko modua da; gauza on horiek bilatzen eta ikusten ez badituzu, ezin duzu aurrera egin.

Gurasoak, familia, ondoan izan al dituzu?

Ama bizi da oraindik, eta, familiak oso gaizki pasa badu ere nire espetxeratzearekin, nire ondoan egon da. Oso pentsaera desberdina dugu, baina nirekin egon dira, maitasuna erakutsi didate eta hori ordainezina da. Hori beti egongo da hor.

2013ko azaroan berreskuratu zenuen askatasuna eta berriz itzuli zinen Euskal Herrira. Noski itzuli nintzela Euskal Herrira, nora bestela? Nire etxea he-

men daukat, Urnietan. Eta etxea niretzat aingura modukoa da.

Kazetaritza albo batera utzi duzu, baina, nola ikusten duzu egungo kazetaritza mundua?

Egia esan, pena handia ematen dit gaur egungo kazetaritzak. Eta ez da soilik kazetarien errua; sortu diren komunikazio talde erraldoietan lotura ekonomikoak dira nagusi, interes enpresarial handiak daude eta ezin da ezer kritikatu. “El País” egunkariko editorial batzuk irakurtzean amorratu egiten naiz, greba eskubidearen erregulazioa galdaginez-eta... Eskubide murrizketa izugarri bat gertatu da, begira orain gutxi onartu duten “Mozal Legea” bera ere. Duela urte batzuk zilegi ziren gauzak gaitzesgarriak dira orain, baita euren buruak aurreraikitzen dituzten horien artean ere. Faxismo berri bat sortzen ari da; hemen ez dago eskuin muturreko talderik, baina PPrekin beharrik ere ez dagoelako besterik ez da. Pena izugarria ematen dit.

